

www.noaia.com

# Noaia !!



Ostiral honetan, antzerki saioa Udarregi ikastolan



Ehizaren lege berriak sutan jarri ditu ehiztariak

# USURBILGO HAUR ESKOLA

0-3 URTE BITARTEKO HAUR HEZKUNTZAKO  
06/07/08. urtean jaio eta jaioko diren haurrak

- **NON:** Kalezarren • **ORDUTEGIA:** 7.30 -18.30
- **EGUTEGIA:** astelehenetik ostiralera. Iraila - Uztaila
- **INFORMAZIOA ETA IZENEMATEA:**  
martxoaren 3tik apirilaren 30era, 9.00etik 13.30era



OSASUN  
HEZIKETA



ELIKADURA  
EKOLOGIKOA



JANTOKIA



ZERBITZU  
PEDAGOGIKOA  
GURASO ESKOLA



EKIMEN  
BEREZIAK



© 943 374 061



Txalo eta Sorozek  
aurkezten dute

## SOMMER JAUNAREN ISTORIOA

Patrick Süskind

Zuzendaria Xicu Masó  
Aktorea Jose Ramon Soroz

# MARTXOAK 8, LARUNBATA

## 20:00 SUETSI KULTUR ETXeko AUDITORIOAN

SARRERAK ALDEZ AURRETIK EROBITA 10€  
(TXIRRISTRAN ETA NOBUAIKO EGOITZAN SALDAI).  
EGUNEAN BERTAN 12€. NOBUAIKO  
BAZKIDEEK BERTAN EROSI DHAL IZANRO  
DUTE NOBUAIKO EGOITZA ALDEZ AURRETIK.

antolatzailea

**Noaua!!**  
www.noaua.com



laguntzailea

**Albiste iruditan !!**

**Udarregiko hainbat irakasle, Egunkariarekin bat**

Otsailaren 20an eguneroko lanean etenaldi bat hartu zuten Udarregi ikastolako hainbat irakaslek. Euskaldunon Egunkaria itxi zuteneko bost urte betetzen ziren egun berean, ikastola atarian elkarretaratu ziren. Modu horretan salatu nahi izan zuten 2003.urtean itxitako euskara hutseko egunkaria. Eta auzipetuei elkertasuna adierazi, goiz berean, Andoaingo Martin Ugalde kultur parkean bildutako alor ezberdinetako eragileek egin bezala. Egunkaria auziko hamabi auziperatuek duten babes falta nabaria argi utzi zuten. Gertu den epaiketaren aurrean, berriz ere "Egunkaria libre!" aldarrikatu zuten.



IRUDIAN, PASA DEN OTSAILAREN 20AN UDARREGI IKASTOLA ATARIAN ELKARRETARATU ZEN IRAKASLE TALDEA.

**Noaua !!**

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
 943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com  
 Jendaurerako ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan  
 Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com  
 Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com  
 Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com  
 Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com  
 Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieto, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.  
 Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Intza Salsamendi, Alaitz Aizpurua.  
 Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.  
 Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.  
 Tirada: 2.600 ale  
 Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818  
 Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**IKA MIKA** ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.  
NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**Aurkibidea**

- EMAKUMEEN EGUNEAN EKITALDI UGARI **5. OR.**
- EHIZTARIEKIN SOLASEAN **6. OR.**
- HAUTESKUNDE KANPAINAREN HOTSAK **9. OR.**
- ALDERDIAK, MARTXOAREN 9ARI BEGIRA **10. OR.**
- BI ANTZEKI SAIO BEGIBISTAN **12. OR.**
- UDARREGIKOAK, TXURI URDINEN **14. OR.**
- JOKIN IARTZA TXIRRINDULARIA **15. OR.**



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



LUIS ARANALDE

## Pagolaren "Jesus", hurbilketa historikoa

Erroskilak bezala saltzen ari da liburu hau; 50.000 bat mila ale jadanik. Xabier Pikaza teologoak esan duen bezala: "2007ko fenomeno teologiko nagusia". Ez da erraza zutabetxo honetan adieraztea arrakasta horren arrazoiak, baina, hona nire ikuspegia eta balorazioa.

Norbaitek ez baleki, añorgatarra da Joxe Antonio Pagola, 1937an jaioa, Bikario Nagusia izana; Erroman eta Jerusalemen bukatu zituen bere goi mailako ikasketak; hogeit bat liburu argitaratu ditu; zazpi urteko lana suposatu dio azken liburuak.

1- **Edukia.** Garai hartako pentsamolde eta kode gehienak hausten zituen gizona aurkezten digu Pagolak. Zein izan zen Jesus? Zergatik ez da ahaztu bere izena? Zergatik hil zuten? Galdera hauei eta beste askori erantzun nahi die. Eta ez nolana hiko erantzuna: zientifikoa, historikoa. Azken urteotan idatzitako berrehun bat liburu irakurri, landu, aztertu ditu bere Jesus hori aurkeztu aurretik. Gai honi buruz historialariek egin dituzten deskubrimendu guztiez baliatu da. Horrela agertzen digu Jesusen garaiko egoera politikoa eta erlijiosoa, lanbideak, klase sozialak, tradizioak... Garaia aztertu ondoren, Jesusen rola, lana, ametsak, jasan zituen erasoak, predikua, baztertuekiko gertutasuna, txiro mota guztien aldeko borroka... Jesusi buruzko irudi benetan erakargarria ematen du.

2- **Idazkera.** Estilo soila, erraza, erakargarria. Hiru pertsona klasetan pentsatuz idatzi du: kristauengan ("predikatzaile askok nahiko gaizki aurkeztu die Jesusen irudia"); sinesgabeengan ("gizadi osoaren ondarea baita Jesus"); eta gazteengan ("nahiz eta ez zaiela axola esan, interesatzen zaie pertsonaia ezagutzeari"). Hauek denek ulertzeko moduan idaztea ez da txantxetako lana. Bada, nire ustez, lortu du. Nire lagun pagano samar batek honela zioen: "Motel, semearen futbol partidura joan eta, han ere, Pagolaren liburua beste konturik ez zagok". Teologia arloan aditua izan beharrik ez dago, beraz, idaz-

ki hori ulertzeko.

3- **Polemika.** Jose Antoniok bazekien Gotzainen baten makuludaren bat edo beste jaso beharko zituela. Ez dut uste ustekabeen harrapatu duenik piztu duen alarma horrek. Zer dela eta? Betikoa: alde batetik, Elizaren sektore integrista edo fundamentalista batzuen ustez, zalantzan jartzen ditu Pagolak Ama Birjiñaren birjintasuna, Jesusen berpizkundea, mirariak, jainkotasuna... Bibliako kontaketak hitzez hitz hartzen dituzte hauek, testu sinboliko eta metaforiko izanik askotan. Ez dira enteratu ere testu horiek interpretatzeko klabea "genero literarioak" deritzana erabili behar dela, bereizteko testuak jartzen duena, esateko era eta esanahia. Bestetik, zientziaren aurkikuntzen beldur dira talde horiek, zientzia historikoa bibliaren aurka balego bezala. Louis Pasteur-ek esaten zuen: "Zientziak Jainkoarengana eramaten gaitu; ezjakintasanak, aldiz, urrundu". Mesfidantza ematen die egia historikoak. Norbaitek zioen: "Traditio sine veritate, pesima corruptio", hau da, egia gabeko tradizioa, ustelkeriarik makurrena. Pagolak badaki egia bakarrik bihurtuko gaituela pertsona libreak. Horregatik atxikitzen zaio horren sendo egia historikoari.

4- **Animatua.** Bere egoera animikoaz kezkatzen direnentzat, idazkitxo bat jarri du interneten. Honela dio: "Sufritzen ari naiz, niregatik eta nire inguruko batzuegatik Elizaren sektore batzuk nire ahotza isilarazi nahi dute. Baina, ez naiz desanimatzen, lanerako gogoia pizten dit egoera honek".

Laburtuz: Pagolak aurkezten digu gizatasunaren paradigma edo eredu den Jesus, errukiz jantzia, justiziako eta maitasuneko mundu berri baten ametsa ("Jainkoaren erreinua") egin eta gauzatzen saiatu zena. Eta hori dena, ahalik eta datu historiko gehienekin kontrastatuz.

Bejondeiala, Joxe Antonio: txapelkun haiz. Jarrai horrelaxe!

Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Joxe Piñas - Unai Agirre

### Ika-mika !

## Zaborraren kudeaketa gure esku dugu

Errauste planta dela eta badira urteak, zenbait herritar alternatiba berriak planteatzen eta aztertzen ari gara. Eta herritar gehienak Errauste plantaren aurka daudela ikusteko ere adibide ezberdinak izan ditugu, egokiena herrian bertan egin genuen manifestaldia. Orain ordea, zaborraren kudeaketaren gaia komunikabideetan eta politikarien artean dabilela dirudi. Dena den, argi izan behar dugu zaborraren kudeaketan herritarrok izan behar dugula protagonista eta edozein ideia politikoren gaitetik jarri behar dugu gure osasuna eta gure ingurumena.

Duela gutxi San Markos mankomunitateko eta zenbait herrietako ordezkariak (tartean Usurbilgo zenbait herritar eta udal ordezkari ere) Katalunia eta Mallorkako herri ezberdinetan izan ginen zaborra nola kudeatzen zuten ikusten. Ikusitako adibideak dagoeneko martxan daudenak izan dira eta argi eta

garbi ikusi ahal izan dugu zaborra kudeatzeko era ezberdinak posibleak direla. Eta kudeaketa honen oinarriko printzipioa, material organikoa biltzea da. Materia organikoa biltzeko berriz, atez ateko bilketak nola funtzionatzen duen ikusi dugu. Materia organikoaren biltzea egitearekin batera, orainarte bereizten ditugun gaien biltzea ere igo egiten da eta zaborraren %80 gaika biltzera eta berziklatzera iristen dira zenbait herritan.

Aipatutakoa adibide bezala hartu behar dugu, Usurbilen martxan jarri nahi dugun Plan Pilotuak ondo funtziona dezan eta horretarako herritar guztiok gure ahalegina egin beharko dugu. Alde batetik, norberaren etxean egiten dugun zaborraren sailkapena funtsezkoa izango da eta bestetik, herritar guztiok gure aportazioak egin beharko ditugu zaborraren atez ateko biltzea ahal dugun era egokienean egiteko.

Errauste planta Zubietan ez jartzeko bidea

izango da. Herritar guztion artean zaborraren %70-80 gaika bildu eta berziklatzeko gai gara. Erakusten badugu zertarako behar dugu errauste planta? Politikariek esan behar al digute zaborren %20-30 kudeatzeko planteatzen duten errauste planta behar dugula? Material organikoa kentzen badugu zaborraren zakutik geratzen den erreusa ez da gaur egungo bertederora doan zaborra. Zabor hau inerte da eta ez gure gaur egun ezagutzen dugun zabortegirik beharko.

Hori guztia lortzeko, herritarrok gure esku daukagu indarra. Badirudi zenbait politikariek aspaldi erabaki zutela errauste planta dela soluzio bakarra baina, denen artean erakutsi ahal izango dugu oker daudela. Alderdikeriak alde batetara utzi eta geronen esku daukagu zaborraren kudeaketa nahi dugun bezala egitea.

Usurbil Bizirik

## Emakumearen Eguna ospatzeko, hitzaldia eta bertso-afaria antolatu dira

**M**artxoaren zortzian, Emakumearen Nazioarteko Eguna izango da. Udaleko Ongizatea, Emakumea eta Gizarte Zerbitzu Sailak bi ekitaldi antolatu ditu; martxoaren 8rako bertso-afaria eta 5ean hitzaldia. Afarirako txartelak salgai dira martxoaren 2ra arte. Hitzaldiak famili esparruko berdintasuna jorratuko du.

Berdintasuna baina familia esparrura ekarrita. Arlo hori jorratuko duen hitzaldia entzuteko aukera izango da Sutegin martxoaren 5ean, asteazkenez. Jaione Fraile pedagogo arituko da hizlari lanetan. Haren eskutik, sexismoa eta familia kontzeptuak aztertuko dira. Baita gure praktika familiarrak berdintasunezkoak ote diren ere. Famili kideen zaintza partekatua edota erantzunkidetasun gaiak


ere ahotan hartuko ditu hizlariak.

### Hitzaldia Sutegin

“Berdintasuna famili esparruan” izenburupean antolatu den hitzaldiak honako gai hauek landuko ditu: zer ulertzen dugu berdintasunagatik famili esparruan? Zenbait ideia: hezkidetzeta, erantzunkidetasuna, famili kideen zaintza partekatua... Baita sexismoa eta familiari buruzko gaia ere.

Hizlaria Jaione Fraile, pedagogo izango da. Gogoan izan hitzaldia martxoaren 5ean asteazkena egingo dela arratsaldeko 18:30etik aurrera, Sutegiko auditorioan. Jaione Frailek euskaraz eskainiko du hitzaldia eta sarrera doan izango da.

**Antolatzailea:** Usurbilgo Udaleko Ongizatea, Emakumea eta Gizarte Politika Saila.



FAMILI ESPARRUKO BERDINTASUNA  
HITZALDI BIDEZ AZTERTUA IZANGO  
DA MARTXOAREN 5EAN SUTEGIN.

## Maialen Lujanbio, Nerea Elustondo eta Jexux Mari Irazurekin bertso-afaria

**B**ertso ederrak eta menu goxoa. Horiek giro onarekin batera, martxoaren 8ko bertso afariko osagaiak. Andatzpen 21:30ean hasita.

Udaleko Ongizatea, Emakumea eta Gizarte Politika Sailak espresuki egun horretan oinarritutako bertso-afaria antolatu du Andatzpe elkartearen. Bertsoak entzun eta menu goxoa dastatzeko aukera izango da. Baina horretarako txartela erosi beharra dago. Hogei euroren truke salgai dira Txiribogan eta Txirristran, martxoaren 2ra arte.

**Eguna:** martxoak 8, larunbata.

**Ordua:** 21:30.

**Lekua:** Andatzpe elkarte.



JEXUX MARI IRAZU, BERTSO-AFARIKO  
PARTE HARTZAILEETAKO BAT.

**Bertsolariak:** Maialen Lujanbio, Nerea Elustondo eta Jexux Mari Irazu.

**Gai jartzailea:** Joxe Mari Izeta.

**Menua:** urdaiazpikoa, langostinoak eta baserriko oilaskoa letxuarekin. Postrea.

### Peoi lan-poltsa osatzeke deialdia

**U**dalak peoi lan-poltsa bat sortzeko asmoa du. Eskerak egiteko epea otsailaren 29an ostirala amaituko da, eguerdiko 12etan. Oinarriak eta eskerak egiteko orriak udal erregistroan daude interesatuen eskura.

### Astelehenean, odol ematea

**D**atorren astelehenean, martxoak 3, odola emateko aukera berri bat izango da. Ohi bezala, herriko anbulatorioan, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara. Odol emate saioetan mediku bat izaten da beti, sor daitezkeen kezka guztiak argitzeko.

# Ehiztariak, ehizako lege asmo berriaren aurka

**E**uskal Herritik Espainiara ehizatzerazera joateko ohitura dutenek, aldaketa handiak jasan ditzakete laster. Indarrean jarri nahiko litzatekeen legedi berri batek, munizioz aldatu edota ehiza epe eta kopuruan muga berriak jartzea ekar dezake. Zalantzasz beterik eta kezkatu dira ehiztariak. Inguru hauetan, horrelako lege baten faltan, Estatu espainiarrean onartutakoak zuzenean eragingo baitie. Aurkakotasuna adierazteko Madrilen manifestaziorako dei egin dute martxoaren 1ean.

Asko dira urtean zehar, ehizatzerazera kanpora joan ohi direnak. Horrelakoetan, eperrak, basurdeak edota oilagorrak dira haien ehiza gaiak. Zaletasun horrek badi-tu bere mugak ordea.

## LEGEDI BERRIA

“Erabili beharreko munizioan nabarmenduko da, bereziki, lege berria”

Azkena, gutxi barru onartzeko asmotan dabilzan legedi berri bat. Aldaketa bat baino gehiago ekar ditzake, bereziki Euskal Herriko mugetatik harantzago ehizatzerazera joateko ohitura dutenentzat. Zalantza eta kezka nagusi, jarduera horretan dabilzanen artean.

## Munizio aldaketa

Erabili beharreko munizioan, nabar-



BURUNTZALDEKO EHIZTARIEK HAINBAT BILERA EGIN DITUZTE AZKEN ASTEOTAN. IRUDIAN, ANDOAINEN EGINDAKO BILKURA.

menduko da. Ingurugiroari kalte gutxiago eragiteko, orain arte erabili izan den beruna beste material batek ordezkatzeko ekar dezake. Ondorioz, baita eskopetaz aldatu beharra ere, material aldaketak horietako arma asko baliogabetuko litzuzke eta.

Gertuago, gure inguruetan ehizean aritu ohi direnek ere legedi berri honen eragina paira dezakete. Espezie migrazaileen ehiza aldatu daiteke, kopuru eta epeei dagokienean. Udazken partean asko dira horrelako ehizaldietan parte hartzen duten herritarrak.

Edozein kasutan, itxura guztien arbera, Euskal Herritik Estatu espainiarrean doazen ehiztariak izango dira aipatu aldaketak zuzenean jasango

dituztenak. Beti ere, legedi berria onartzen bada.

## Manifestaldia Madrilen

Lege asmo horri aurkakotasuna adierazteko, manifestaldia deitua dago Madrilen larunbat honetan, martxoak 1. Besteak beste, Gipuzkoako hainbat ehiztarik manifestaldiarekin bat egin dute.

Duela egun gutxi, Andoaingo Ontza elkartean Buruntzaldeko ehiztari talde bat bildu zen. Haiek ere, Madrilen deituta dagoen mobilizazioarekin bat egitea erabaki zuten. Hori dela eta, bertara joateko autobusa antolatu dute.

Bidaia aipatu garraibidean egin nahi duenak izena eman beharra du, honako telefono zenbakian: 676 961 394.

**LATAILLADE**  **ITURGINTZA**

GASA BEROKUNTZA  
MANTENIMENDUA ETA  
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

**txirriStra**

KONTSEJUZARRA 13  
943 360 466

pintxoak  
ogitartekoak  
piater konbinatuak

**TABERNA**

# “Ehiztari batzuen fama txarra denenengana zabaldu da”

**U**surbilen bada ehizarako afizioa. Tarte bat hartzen dute udazkenean uso edota birigarroak ehizatzeo. Arkaitz Lizeaga eta Haritz Esnalek adibidez.

**NOAUA!** Lege berri horrek hemendik kanpora ehizatzeo doazenei eragingo die. Zuek hemen inguruan aritzen zarete ehizean?

**Haritz Esnal.** Usurbilen, Aian. Beste herrietara joanez gero ere dena hartua dago eta hemen inguruan mugitu behar.

**Arkaitz Lizeaga.** Gipuzkoan ez dago batere lekuri. Oso leku gutxi.

**N. Ehizatzerakoan zer nolako mugekin topo egiten duzue?**

**H. E.** Ehiza-barrutietan badaude mugak. Herrian ehizatzeo garaian, ez dago inongo mugarik. Badaude espezie batzuk ehizatu ezin direnak, baina legalak direnen kasuan, botatzeko ez dago kuporik.

**A. L.** Ehiza desagerrarazi dezaketenekin. Aurkari asko ditu. Hasteko toki falta latza dago Gipuzkoan.

**N. Zer ehizatzen duzue?**

**A. L.** Usoa eta birigarroa.

**N. Udazkeneko ehizaldia zer moduz joan zen?**

**A. L.** 2006koa txarra izan zen. Iazkoa are okerragoa.

**N. Zerk txartu du ehizaldia?**

**A. L.** Hego haizerik ez du egin aurreten.

**H. E.** Hemen behintzat txarra. Etxalar aldean esan dutenez, ona izan da. Hemen, hego haize indartsua behar denez...

**N. Eta zer beste baldintza, ehizaldi on baterako?**

**A. L.** Usurbil inguruan hego haize



HARITZ ESNAL ETA ARKAITZ LIZEAGAREN USTEZ, AZKEN URTEAK EZ DIRA EHIZARAKO ONENAK IZAN.

handi samarra. Eta ahal bada lainorik ez, zerua oskarbi izatea.

## ARKAITZ LIZEAGA

“Ehizak aurkari asko ditu. Hasteko, toki falta latza dago Gipuzkoan”

**N. Ehizaldi txarrak ehiztari kopurua murriztu al du?**

**A. L.** Ehizean urria erdialdetik azaroaren erdialdera arte ibiltzen dira ehiztariak. Hortik aurrera, gutxi. Hemen behintzat batere ez. Gehienak kanpora joaten dira.

**H. E.** Uso garaian ibiltzen da gehien bat.

**N. Udaberriko ehizaldirik ez da?**

**A. L.** Galarazita dago. Hala ere, debekatu baino lehen, egunean, postuko sei uso bota zitezkeen.

**N. Ehizan hasi nahi duenak zer pauso eman behar ditu?**

**H. E.** Lehenbizi lizentzia atera behar du. Federazioak egiten du.

**A. L.** Hori gairidituta, arma baime-naren azterketa egin behar da. Ondoren, tiroko praktikak egin behar.

**N. Ehiztariak irudi txarra al du gaur egun?**

**H. E.** Kontra dagoen jende asko dago. Legeak beteta ere, batzuk aurka daude. Legalki espezieak botata ere, batzuek diote horrelakorik ezin dela bota. Ez zaie ondo irudituko.

**A. L.** Ehiztari batzuen fama txarra, denengana zabaldu da. Batzuek legeak ez dituzte behar bezala betetzen eta.

**N. Nola ikusten duzue ehizaren geroa?**

**A. L.** Diruak aginduko du. Orain ere, ia edonora aterata ere, diru gehien jartzen duenak, harek postu onena. Hemen ere postu batzuegatik ordaindu behar da. Ehiza libreak ari-tzeko ere ordaindu gabe ezin.

## Alkartetxea erasotua, inaugurazioaren biharamunean

Usurbilgo Eusko Alkartasunak egoitza berria dauka. Puntapax kalean aurkitzen da EAren alkartetxea. Aurreko larunbatean egin zen inaugurazio ekitaldian, alderdiko buruak elkartu ziren: Unai Ziarreta alderdiko presidentea, Iñaki Galdos Gipuzkoako presidentea eta Nekane Alzelay martxoaren 9ko hauteskundeetarako EAko hautagai nagusia. Luismari Ormaetxea zinegotziak gidatu zuen aurkezpen ekitaldia. Ohiko dantza saioa eta zinta-mozketa egin eta gero, herritarrek, bertan bildutako komunikabideek eta alderdiko buruzagiek egoitza berria barrutik ezagutzeko aukera izan zuten. Handik Sutegira abiatu ziren. Mitina eta gero, hamaiketako eskaini zitzaizen bertaratu ziren denei.

Larunbat eguerdian egin zen Alkartetxearen inaugurazioa. Usurbilgo



ALDERDIKO BURUAK HURBILDU ZIREN EGOITZA BERRIAREN INAUGURAZIORA. BIHARAMUNEAN, EZEZAGUN BATZUK ATARIKO KRISTALA APURTZEN SAIATU ZIREN.

Eusko Alkartasunak salatu duenez, ezezagunek atariko kristala apurtzen saiatu

ziren. Ezbeharra igandetik astelehenera gertatu zela uste dute.

## Martxoaren 3an astelehena, Ezker Abertzalearen ekitaldia Sutegin

Ezker Abertzaleko ordezkari ugari bildu zen pasa den igandean Usurbilgo frontoian, eta abstentziorako deia berretsi zuten bertaratuak.

Idoia Iberok prentsa agerraldian adierazi zuenez, EAJ-PNVk eta PSEk "ezker abertzalearen borroka indargabetu" nahi dutela eta horregatik "abstentzio aktiboa" eskatu zuen, hori delako "bizi

dugun salbuespen egoera kaleratzeko modurik onena, demokrazia gabezia salatzeko modurik onena".

Ezker Abertzaleak antolatuta, datorren martxoaren 3an astelehena "Loiolako elkarrizketa eta Marko Demokratikoaren proposamenaren" inguruan osatu duten DVDa aurkeztuko dute Sutegin, arratsaldeko 19:30ean hasiko da ekitaldia.



Martxoaren 5ean, Aralarren ekitaldia Udarregi ikastolan

Aralar alderdiak mitina eskainiko du datorren astean, martxoak 5 asteazkena, Udarregi ikastolan. Aralarren koordinatzaileorde Jon Abril eta Kongresurako Gipuzkoako zerrendaburu Iñaki Irazabalbeitia hurbilduko dira Udarregira. "Ezkerra berri, ezker aberri" lema izango da hitzaldiaren abiapuntua. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da mitina.



PASA DEN IGANDEAN, USURBILGO FRONTOIAN EGINDAKO AGERRALDIA.



# Martxoaren 9ko hauteskundeak, bertako ordezkari politikoan ahotan

**M**artxoaren 9an igandea, Espainiako Gorteetarako hauteskundeak egingo dira. Honen harira, Usurbilgo udaletxean ordezkaturik dauden alderdien irizkiak jasotzeko ahalegina egin dugu.

Hiru galdera jarri dizkiegu mahai gainean. Hauek dira galderak:

1. Alderdien legearen ondorioz, legealdi berria ez al da baldintzatuta hasiko?
2. Usurbildik edo Euskal Herritik begira, zer nolako onura du Madrilgo Kongresuan ordezkaturik egoteak?
3. Zein da zuk ordezkatzeko duzun alderdiak defendatuko duen programa?

Segidan dituzue Usurbilgo udaletxean ordezkaturik dauden alderdiek idatzitako bidali dizkiguten balorazioak.



MARTXOAREN 9KO HAUTESKUNDEETAN, MADRILGO GORTEETAKO ORDEZKARIAK AUKERATUKO DIRA.



## Amaya Goyaran, PSE-EEko udal zinegotzia

1. **Alderdien legea** polemikarekin jaio zen lege horietakoa da, batzuk erabat ados daude eta beste batzuk zalantzak dituzte lege horren hainbat xehetasunekin, edo onartu zen prozedurarengatik (ez zen denon kontsentsuarekin onartu). Batzuk kritikatu eta gaitzetsi egiten dute legea, baina bere aplikazioaz aprobetxatu egiten dira. Beste lege batzuk bezala, gustuko izan edo ez, onartu egin behar dugu eta legearen kontra dauden alderdiak, babesak lortu behar dituzte legea aldarazi edo bide demokratikoen bidez indargabetzeko. Baina legealdi berria hasterakoan, legearekin betetzen duten alderdi guztiak izango dira. Alderdi denek badakite zer egin behar duten eta aske dira onartzeko ala ez onartzeko. Pena izango da sentsibiltate denak ez egotea, baina egongo ez direnek asumituta duten zerbait da.

2. **Usurbildik** edo beste herri batetik begiratuta, ona da ahalik eta ordezkari handienarekin Madril izatea, era honekin gure ahotsa entzunarazi ahal izango dugu, gure aldarrikapenak jakinarazi,

Estatuak egin behar dituen inbertsioak bideratu ahal izateko. Azpiegituren finantziarioan udalerriek, foru aldundiek, erkidego autonomiko estatalak eta Europako instituzioek hartu behar dute parte. Beraz, ordezkaturik bagaude, Euskadiren beharrak eta Usurbilgo beharrak aldarrikatu ditzakegu.

3. **Alderdi Sozialistaren** ildo nagusiak betikoak dira, ahulagoak diren defentsa, bakea eta askatasunaren bilaketa, eta pertsonentzat lan egitea. Amaitu berri den legealdian, ahulagoak eta baztertuak diren aldeko legeak garatu dira, dependentsia legea, esate baterako, genero biolentziaren aurkako legea, berdintasun legea, alargun geratu eta gero SOVI delako pentsioa galdu zutenei pentsio hori berrezartzeko eskubidea, euren eskubideak onartu gabe ziztuzten pertsonen duintasuna itzuli zaie (era guztietako bikoteei ezkontzeko eskubidea eman, identitate sexualaren legea, memoria historikoaren legea...).

Alderdi Sozialistaren aldetik, Euskadin bake bidera iristeko prozesua zabaldu

zen, nahiz eta indar eskuindarren eraso bortitza izan, inoiz baino erradikalagoa, baina prozesu hori itxi egin zen ETak Barajasen (Madril) Ekuadorreko bi herritar erail zituenean.

Orain Alderdi Sozialistako kideok, herritarren konfiantza behar dugu datoren legealdian agindu ahal izateko eta lege denak %100ean garatu eta lege berriak bideratu ahal izateko.

Etxebizitzaz, heziketaz, enpleguaz... ere hitz egin dezakegu, baina Alderdi Sozialistako kideok gai hauen alde lan handia egin arren, herritarren aldeko politikan oinarritzen gara, ezberdintasun sozialak eta ekonomikoak ahalik eta txikiak izan daitezkeen, horregatik gure alderdiaren ildo nagusiak bi puntu hauek laburbildu daitezke:

- Pertsonen alde lan egin eta pertsonen aldeko legeak eman.

- Behin betiko bakea bilatu eta berdintasunaren, integrazioaren eta ahulagoak diren alde borrokatu.



## Jose Ramon Beloki, EAJ-PNVko zerrendaburua

**1. Bai, tamalez** hala hasiko da. Ez bakarrik Alderdien legearen ondorioz. Baita ere Lege horri buruz zenbait epaileek, Garzon buru, egiten ari diren aplikazioaren ondorioz. Dena esateko, ez da gainera bakarrik lege bat eta bere aplikazioa. Gauza asko dira gure artean, Euskadin, politika nola edo hala baldintzatu nahian dabilzanak eta hori lortzeko edozein bitarteko erabiltzeko prest daudenak. Bestela nahiko lan ez eta, horren kontra lan egitea ere tokatzen zaigu euskal politikari-riei zoritxarrez. Hemen Euskadin, eta han Madrilen.

**2. Nonahi ere,** Euskadiko interesak ezta baidatu edo baldintzatu direla, han egon behar dugula interes horien aldeko defentsan pentsatzen dugun abertzaleak gara gu. Horretarako gaude gu han Madrilen. Han ere, esango nuke, gaur oraindik Euskadiko auzi asko erabaki eta baldintzatu direnez.

Bestalde, berriz, Euskadiren aldeko dena, Euskadiko herri eta herritarren aldeko ere ba dela garbi dago, Usurbil barne.

Hori da printzipala, abertzale ikuspegi

batetik. Gero, gainera, jakina, tarteka suertatu daiteke herri baten proiektu eta/edo gorabehera berezi bat konpontzeko orduan ere interesgarri gertatzea Madrildik izatea. Horretan ere gogor saiatzen gara gu, nahiz ez beti gauzak guk nahi bezala atera. Baina azken lau urtetan zenbait herrikeri zer probetxu atera duten EAJren Madrildo Parlamentariaren eskutik begiratu besterik ez dago, hortik ere hainbat onura atera daiteke la jabetzeko.

**3. Bost ardatz** edo helburu nagusi ditu, xehetasun gehiegietara ez jaistearren.

Lehenik, eta nagusiki, Euskadiren normalizazioa bultzatzera goaz. Ondorengo lau urteak ez dira, seguruenik, nolana hikoak izango honetarako eta indartsu egon nahi genuke Euskadik bere egunean erabakiko duenari eman beharko zaion bultzada guztia emateko.

Bigarren ardatza: Gernikako Estatutuarekin orain hogeit hamar urte pasa lortu genuena burutu dadila behingoz, beste biderik urratzen ez dugun bitartean.

Eta, jakina, batez ere, inolaz ere bide hori ez dadila eten, egunero han Madrilen hainbat tek nahiko lukeen bezala.

Hirugarren ardatza: oraindik ere Madrildo Gobernuak bere eskutan gorde-tzen dituen eskuduntzei erantzun diezaiela erantzun behar dien modura, serio eta fundamentuz. Ez dezala, hor konpon egin, gus-tatuko litzaiokeen eta sarri egiten duen bezala. Zorrotz exijitu, hitz bitan esateko.

Laugarrena: demokrazian ez dadila pauso bat bera atzera eman. Aznarren azken legealdian demokraziarekin ezkontzen ez diren edo seko gaizki ezkontzen diren neurriak hartu ziren. Zapatero lau urtez egon da, baina ez dugu lortu gauzak bere onera ekar-terik. Ez dugu etsi, ez etsiko, ez horixe. Hor ere egiteko garrantzitsua dugu.

Eta bostgarren: garapen ekonomiko eta sozial solidario eta jasangarriaren aldeko neurriak bultzatu. Bizitza ez dago, eta ez dator, erraza batez ere gure seme-alaba eta gure jende gazteentzat. Mila aldetatik begi-ratuta ere. Horretan ere, beti ere Euskadiren alde lanean, gure onena emateko gaude.



## Iñaki Irazabalbeitia, Aralarreko zerrendaburua

Lerro hauek leitzen dituen herritarrak galde diezaioke bere buruari ea zergatik eman behar duen botoa Madrilerako hauteskundetan? Zer galdu ote zaigu euskaldunoi han? Usurbilen egonik zera erantzungo nioke, Zubietan errausketa-planta eraiki nahi dutenek 'arrazoi' gutxiago izan dezaten zaborren inguruko legea aldatzeko. Izan ere, 'zaborrik onena' sortzen ez dena da, hots, zaborra gutxiago sortzea eta gauzak berrerabiltzea. Hori lortzeko jendearen ohiturak aldatzeko lanak egiteaz gainera, lege egokiak behar dira. Lege horiek ez dira mankomunitatean, Batzar Nagusietan edo Eusko Legebiltzarrean ematen, Madrildo Kongresuan baizik. Zaborren alorrean lege berriak behar dira, egungo lege atzerakoiak gainditu eta, adibidez, botilen berrerabilpena bultzatzeko, janariak biltzeko gehiegizko bildukiak erabiltzea zigortzeko eta antzeko neurriak hartzeko bide emango dutenak.

Bestetik, ez dago giro, hauteskundeetarako. Su-etena apurtu izanak ekarritako dinamika inora ez garamatza. Batetik, ETA artean ohar-tzeke borroka armatuarekin amaitu behar dela eta herri honi, herri honen ezkerriari bereziki, kaltea besterik ez diola egiten, kontsiderazio etikoa haratago, herrigintza-dinamikak ezinezko bihurtzen dituelako.

PSOEren oldar errepresiboa bestetik. Brunete judiziala estajanovismoz ari da lanean, zuzen-bide-estatuaren oinarriak kolokan jarriaz.

Zer egin dezake ezkerreko euskal alderdi independentista batek horrelako egoeraren aurrean? Barruan duzun 'patxi kontra' horrek hauteskundeak sasideмократikoak direla esaten dizu eta pasatzen uzteko. Buruak ordea, 'lasai motel!' Hauteskundeetan parte hartu egin behar da; espaziorik ezin da utzi; zuk libre uzten duzuna beste batek beteko du. Aralarrek hauteskundeetan parte hartzeari utziko balio, ez lirake horratik are ez-legitimoagoak izango. Aurrera, beraz!

Aralarren proposamena lau ildo nagusiren eta hamaika punturen inguruan bilduko da: erabakitzeko eskubidea; pertsona guztiak, ideia guztiak eta proiektu guztiak; euskararen aldarria eta ezkerreko politika tolesgabea.

Aralarrek, hemen Euskal Herrian eta, han, Madrildo Kongresuan, elkarlana bilatuko du Euskal Herriaren erabakitzeko eskubidea lor dezan. Auzolana da Aralarren aldarria; Nafarroa Bai da horren lekukoa.

Bestetik, pertsonen eta indar politikoen eskubide politikoak oztopatzen eta ukatzen duen legedia ezabatzeko lanean arituko gara. Partiduen legea bertan behera uztea gure helburu nagusietako bat izango da eta horrekin

batera salbuespeneko auzitegiak betirako ixteko lanean jardungo dugu. Halaber, euskal gatazkaren konponketa elkarrizketatuaren alde irmo egingo dugu.

Independentistak gara Aralarrekoak, baina garbi dugu aldi berean, euskaldunok Espainiako hiritar garen bitartean Estatuak euskara babestu eta sustatu behar duela. Gauza bera katalana eta gailegoaren kasuan. Hortaz Kongresuan eta Senatuan euskara lan-hizkuntza izatea helburutzat dugu. Herritarrak estatuko administrazioarekiko harremanak euskaraz egin ahal izatea lortu nahi dugu. Hori gutxienez zor baitzaigu euskaldunoi.

Ezkerreko indarra ere bagara eta ezkerreko baloreen defentsa egingo dugu: berdintasuna, elkartasuna, justizia soziala, diskriminaziorik eza, errepublika, laikotasuna, etorkinen eskubideak, garapen jasangarriak, ... Abortuaren legea berritzea emakumeek erabakitzeko aukera izan dezaten. Duintasunez hiltzeko eskubidearen aldarria egingo dugu. Lanbide arteko gutxieneko soldata duinaren alde egingo dugu eta Europako neurriera eraman nahi dugu, gaurko 600 eurotik 1.200 eurora igo nahi dugu 4 urtetan...

Ilusioa eta lana hori da Aralarren promesa, ez beste.



## Luismari Ormaetxea, EA alderdiko udal zinegotzia

1. **Alderdien legearen** ondorioz, legealdi berria baldintzatua hasiko da, herri honen parte bat politikoki baztertua gertatuko delako, eta hau edozein printzipio demokratikoren kontra doa. Horregatik Eusko Alkartasunak, lege honen kontra eta ilegalizazioen kontra azaltzeko, joan den larunbatean, Gernikan, konzentrazio bat antolatu zuen.

2. **Bi arrazoi** nagusi daude Madrilgo parlamentuan ordezkaturia egoteko:

- Madrilen ere, egun oraindik, euskal herritarroei dagozkigun erabakiak hartzen dira eta eztabaida hauetan gure hitza entzutea ezinbestekoa da, hartzen diren erabakiak herritarren bizi baldintzak hobetzeko direla bermatzeko eta ziurtatzeko.

- Eta bestetik, Madrilan, Euskal Herriak pairatzen duen gatazka politikoari erantzuna emango dioten erabakiak errespetatuko direla ziurtatzeko eta Euskal Herriak erabakitzeke duen eskubidea bermatuko

delat ziurtatzeko, entzun behar gaituzte.

3. **Eusko Alkartasunaren** hauteskunde programa bi zutabetan oinarritzen da.

Lehen zutabeak, bakea eta normalizazio politikoa jorratzen du, ardatz nagusia Euskal Herriak erabakitzeke duen eskubidea delarik.

Bigarren zutabeak politika sektorial desberdinak jasotzen ditu.

Ongizate estatuan sakontzeko proposamen nagusiak hauek dira:

- Lan harremanetarako euskal esparru propioa garatzea.

- Pentsioen euskal sistema propioa.

- Justizia sistema propioa.

- Euskararen ofizialtasun osoa.

- Kirol selekzioen ofizialtasuna.

Ekonomia garapena sustatzeko, ezinbestekotzat jotzen dugu ikerkuntza eta teknologia berrietan inbertsioak, horregatik arlo honen transferentzia lehentasunez aldarrikatzen dugu.

Ingurugiroari dagokionez, uraren poli-

tika integralak lehentasuna du, ura ezinbesteko baliabidea den heinean eta baliabide eskasa den heinean uraren inguruko politika integrala garatu ahal izateko gaitasun osoak behar ditugu.

Azkenik azpiegiturei dagokionez:

- Pasaiaren erregenerazioa ahalbideratuko duen proiektua indarrean jartzeak lehentasuna izango du.

- Euskal Herriko kostaren erregenerazioa.

- Trenbide sarearen egokitzapena, geltokien egokitzapena eta hainbat puntutan trenbide sarearen lur azpiratzea.

## Xabier Mikel Errekondo, EAE-ANVko alkatea



1. **Legealdi berria** baldintzatuta hasiko da, bai, baina egoera hau ez da berria. Herri honetan bizi dugun defizit demokratikoa izugarria da, eta ezin dugu aritu ezer gertatuko ez balitz bezala. Frankismo garaian bezala, salbuespen egoera larria bizi dugu. Azken hilabeteetako eraso zerrenda beldurtzeko modukoa da: hautets zerrendak baliogabetuta, 200 militante independentista atxilotuta, 500 urtetik gorako espetxe zigorrak, tortura kasu lazgarriak, euskal presoen senideak hil dira, deportatuen heriotzak, gazteen aurkako etengabeko sarekadak, zitazioak, fidantza altuak, eta hori guztia gutxi balitz, EHAK eta EAE-ANVren suspentsioak.

Espainiako eta Frantziako espetxeak euskal militantez betetzen ari dira, frankismo garaitik inoiz izan den preso kopuru handiena dago egun. Eta euskal independentistak politika egiteagatik ari dira kartzelara eramaten, herri honetan marko demokratiko bat eraiki nahi izateagatik, eta independentziaren eta sozialismoaren aldeko bide demokratikoa proposatzeagatik.

Gure herrian ere gertutik bizitu dugu errepresio hau, bi usurbildar, Marisa Alejandro eta Olatz Altuna espetxeratu baitituzte, eta beste herritar bat ere, Juan Mari Torrealdei, epaitzeko zorian dago. Eta zein da euren delitua?

Euskal Herriaren alde lan egitea. Hor dago gakoa.

Honek guztiak garbi erakusten du, gure herrian inoiz burutu diren hauteskunde anti-demokratikoenak egingo direla, nahi den ikuspegitik begiratuta.

2. **Euskal Herriatik** begiratuta, ezer ez. Ikusi dugu zein den Madrilek igortzen digun mezua: 'Nik egiten dudana ez baduzu egiten, egurra'. Errepresioa eta Espainiako Konstituzioa dira eskaintzen diguten gauza bakarra. Baina, kontuan hartu behar da noiz eta zergatik gertatzen ari den errepresio uholde hau. Euskal Herria aldaketa politikoaren atarian dago, eta momentu hauetan Euskal Herriari bi aukera desberdin irekitzen zaizkio: iruzur berri baten bidez Espainiako Konstituzioaren kaiola barruan jarraitzea edo independentziari atek parez pare ireki ahal dizkion marko demokratikoa eraikitzea. Eta bigarren aukera hori ukatu nahi zaio herri honi. Euskal Herriari galarazi egin nahi zaio marko demokratikoaren eta independentziaren norabidean planteatutako aldaketa politikoa burutzea, eta horretarako paretik kendu behar dute herri hau independentziaren atarian jar dezakeen eragile aktiboena, hau da, ezker abertzalea.

PSOEak, PNVk eta NaBaik bidea libre behar dute, Espainiako Konstituzioak ezartzen dituen mugen barruan Estatutuaren beste erreforma bat egiteko. Eta horretara doaz Madrilera, Estatuarekin paktatu eta herri honi iruzur berri bat egitera. Eta bidez batez, euren negozio eta poltronak bermatzera.

3. **Nire alderdiari** debekatu egin diote hauteskunde hauetan parte hartzea, baina hautetsi independentistok Euskal Herriari iniziatiba politiko berri bat eskaini diogu: abstentzio aktiboa. Benetan uste dugulako astakeri eta salbuespen egoera honi inoiz baino altuago stop esan behar diogula.

Abstentzioak aldaketa politikoaren premia inoiz baino ageriago uzteko baldintzak azkartuko ditu. Egungo markoa sostengaezina da, eta aldaketa politikoa atzeraezina da jada. Herri honek benetako aldaketa politikoa behar du, herri eskubideak bermatuko dituen eta aukera independentista posible egingo duena. Izan ere, gure ustez, independentzia da Kosovon eta Europako beste hainbat naziotan ikusi dugun bezala, gure herriaren biziraupena eta garapena eta euskal herritarren eskubideak bermatzen dituen proiektu politiko bakarra. Eta horregatik, martxoaren 9an, abstentzioa independentziaren aldeko pausua ere bada.

# Ostiral honetan, ingurumenari buruzko antzerki saio ironikoa Udarregi ikastolan

**M**attin Irigoienek azken antzezlanak ikus ahal izango dugu larunbat honetan Udarregi ikastolan: "Loreak mendian, ondarrak lurpean eta bideak gainean". Kitzikazak/n taldearen bigarren antzezlanak da hau. Mattin Irigoienek idatzi duen antzezlan honetan, ingurumenari buruzko gogoeta egiten da. Aktoreez gain, saio bakoitzean bi bertsolari aritzen dira. Sutegin, Iñaki Zelaia eta Joxe Luis Urdangarin Hernaniko bertsolariak arituko dira. Aitzakia honekin, Mattin Irigoienek (Nafarroa Behea) hitzak jaso ditugu.

**NOAUA.** Oker ez badugu ulertu, golf zelaiak, 2 x 2 errepidea, zaborte-giak... gai hauen inguruko hausnarketa egiten da Udarregin eskainiko duzuen antzezlanean, ezta?

**Mattin Irigoien.** Bai, ekologia eta gehiago aipatzen dira, konposta egin beharra, abertzaleek amalurrari edo mendiarri buruz hazten dugun mitoa barne... Biziki gai zabala da, eta funtsean galdera da zer egiten ari garen mundu honetaz eta zer egiten dugun gaiari ihes egiteko. Umorea, absurdoa, komikoa eta emozioa dira emanaldiaren ezaugarri nagusiak, gaia grabea izanagatik gure buruari ironiaz begiratzea baitauekagu sanotasun markatzaile.

**N.** Bertsolariak ere gonbidatu ohi dituzue emanaldietara. Usurbilen norzuk arituko dira kantuan?

**M. I.** Usurbilekoan Iñaki Zelaia eta Joxe Luis Urdangarin hernaniar bertsolariak izanen ditugu bidelagun.



IÑAKI ZELAIA ETA JOXE LUIS URDANGARIN HERNANIAR BERTSOLARIAK ERE ARITUKO DIRA MATTIN IRIGOIENEK ZUZENDUTAKO ANTZERKI-SAIO HONETAN.

Erran behar da gure antzerki tradizio-tik edaten dugula, toberak, libertimenduak edo maskaradak bere baitan dituen ezaugarrietan finkatuz, eta guretat balio duten formak berrasmaturik. Horrela antzergunea borobila izanen da eta publikoa inguruan.

## MATTIN IRIGOIEN

“Garrantzitsua da ikuslea eta aktorearen komunikazioa lortzea, publiko/antzezle muga hautsiz”

Aktoreak zentroan edo publiko erditik aritu daitezke eta bertsolariak beren begirada gehitzen dute zirtzilek erran ahogorrikeria guztiei.

Garrantzitsua zaigu ikuslea eta aktorearen identifikazio eta komunikazio

hori lortzea, publiko/antzezle muga hautsiz eta pertsonai/aktore muga ere lausotuz noiztenka.

Azkenik, guretat erronka handia da hegoaldera etortzea, eta nahi genuke zinez jendez-jendeko komunikazio hori lortu zuekin ere. Ez da Iparraldekoa edo amateur delako, kostunbrista, ezin ulertua edo maila apalagokoa dela pentsatu behar. Hemen ere, hor bezala, jendeak bizi nahi du, injustizia, ezazolkeria, bideak eta erraustegiak borrokatu, eta ironia da horretarako baliatzen dugun armetako bat, duintasunezko antzerki baten sortu nahiarekin batera. Etorri lasai, goza dezagun elkarrekin.

**OTSAILAK 29 OSTIRALA, 22:30ean.**

**NON:** Udarregi ikastolan.

**SARRERA, UDARREGIN:** 5 euro.

**ANTOLATZAILEA:** Nafartarrak.

IMANOL UBEDA

**Patri Jatetxea**

K/nagusia 14. © 943 362 725

ALBISTEAK EDIZIO JARRAITUAN · ALDIZKARIA ON LINE · INKESTAK · FOROAK · POSTA

**www.noaua.com**

USURBILGO ATARIA

## “Sommer jaunaren istorioa” antzerki saioa ikusteko sarrerak jada salgai

**S**ommer jaunaren istorioa, Patrick Süskindek idazleak idatzitako liburu baten egokitza-pena da Joxe Ramon Soroizek datarren astean Sutegin taularatuko duena. “Das Parfum” (perfumea) delako nobelaren egilea da Süskind.

Joxe Ramon Soroiz aktoreak, Xicu Masó katalanaren zuzendaritzapean, haurtzaro eta nerabezarako pasarteak bizi-bizi gogora ekartzen dituen pertsonaia antzeztuko digu. Bere oroitzapenetan zehar egiten duen ibilaldian, gizon misterioitsu baten irudia agertzen da behin eta berriz. Kezkagarri eta ilun, irudi horren oroitzapenak betirako lekua hartuko du pertsonaiaren haurtzaroko memorian.

Testua bizitzaren misterioetan zehar barneratzen den balada eder bat dela diote adituek. Malenkoniaz eta umorez beteriko kontakizun bat, garai ezberdinetan kokatzen dena, ikuslea liluratuko duten ezusteko eta iradokizunetz bete.

Axolagabekeriaren eta ahanzturaren lozorroan gorde ditugun gure osagaiak esnatzen ditu “Sommer jaunaren istorioa” antzezlanak. Agian horregatik hunkitu egin ditu 13 urtez ikusle kata-



JOSE RAMON SOROIZ AKTOREA, BAKARRIZKETAREN PROTAGONISTA.

lanak. Datorren astean, antzezlan hau euskaraz ikusteko aukera izango dugu Sutegin.

### “SOMMER JAUNAREN ISTORIOA”

**Noiz:** Martxoak 8 larunbata, Sutegin, 20:00etan.

**Sarrera:** Egunean bertan 12 euro. Aurretik, 10 euro (Txirristran eta NOAUA!n). NOAUA!ko bazkideek, aldeztu aurretik erosita, 8 euro.

## “Garrasika ibili behar al da beti?”, hitzaldia datorren astean Udarregin

**G**arrasika ibili behar al da beti seme-alabek guri kasu egiteko? Galdera horri erantzuten saiatuko dira Hitz Ahok antolatuta datorren martxoaren 5ean, asteazkenean antolatuta den hitzaldian. Gurasoek gustuko ez dituzten seme-alaben hainbat jarrenen aurrean, sortzen diren kezkei buruz mintzatu da hizlari lanetan arituko den Joxe Amiama psikopedagogoak. Garrasika aritzeaz gain, dau-

den beste moduez jardungo dute ekitaldira hurbilduko direnek. Hitzaldi hau, ikasturte hasieratik guraso elkarrekin lantzen ari den “Familia eta komunikazioa” alorra osatzera dator. Gurasoei eta oro har, gaiaz interesa dutenei zuzendua dago.

Hitzordua, 17:00etan Udarregi ikastolako erdiko aretoan. Ekitaldiak irauten duen artean, haurtzaindegi zerbitzua eskainiko da.

## 40 lagun sagastien landaketari buruzko ikastaroan

**J**oan den larunbatean, aurturko Usurbilgo Alkartasuna Kooperatibak 100 urte beteko dituela ospatzeko antolatu diren ikastaro eta hitzaldien arteko lehen ikastaroa ospatu zen, Sutegi kultur etxean. 9:30etik aurrera, Sagarlan SL enpresako teknikari den Aitor Etxeandiak bertaratu ziren 40 lagunei sagastien landaketa eta kimaketari buruzko sarrera teoriko bat egin zuen, eta 11:30ak aldera Usurbilgo sagastien arlo praktikoa landu zen.



AITOR ETXEANDIAK ZUZENDU ZUEN IKASTAROA.

## Giro ederra Araetan egin zen bertso-afarian

**J**ai-giroak eta aldarrikapenak bat egin zuten aurreko larunbatean Araeta jatetxean. Errausketaren aurka antolatu zen bertso-afarian, Andoni Egaña eta Amets Arzallus aritu ziren kantuan.

Aurretik hitzaldia eskaini zuen Zubieta Lantzen plataformak Zubietako frontoi berriko lokalean.



ANDONI EGAÑA ETA AMETS ARZALLUS, AFALOSTEAN KANTARI.

## Irrist eta irrist Txuri Urdinen

**A**zken hilabete hauetan bi aldiz izan gara Txuri Urdin izotz-jauregian. 5 eta 6 mailako ikasleak izan gara Txuri Urdinen. Irakasleak ere gurekin etorri ziren baina irakasleetako bat ez zen sartu. Eta sartu zen maisuetako bat erori egin zen.

Txuri Urdinera patinatzen ikastera joan ginen, hala ere batzuk bazekiten eta beraien estiloa hobetzen saiatu ziren. Hiru begirale egon ziren gurekin eta ariketa eta jolasak agindu zizkiguten: atzeraka ibiltzen ikasi genuen, buelta ematen, frenatzen, makurtua ibiltzen... Libre ibiltzen ere utzi ziguten.

Saioaren bukaera aldera lasterketa bat egin genuen. 6. mailako neska batek irabazi zuen eta izan zen paretaren kontra frenatu zuenik ere. Eskerrak kaskoa jantzita ibiltzera behartzen gaituztela!



IKASLEEK ETA IRAKASLEEK EDERKI PASA ZUTEN TXURI URDINEN.

Hala ere bigarren txanda honetan ez dugu hospitalea bisitatu beharrik izan, aurrekoan bezala.

Hurrena doazenentzat abisua: era-

man sudurra isteko pintza bat, aldageletan egundoko gazta-usaina dago eta!

5. mailako ikasleak

### Zumarte Musika Eskolako ikasleak gustura aritu ziren Andoaingo Piano Jaialdian



**Z**umarteko zortzi ikasleek parte hartu dute asteburuan Andoainen ospatu den Euskal Herri mailako III. Piano jaialdian. Nora Errazkinek, Aizpea Reveriegok, Medea

Cuellarrek, Leire Zubigarayk, Maialen Iñarrak eta Ainhoa Azpirozek zilarrezko domina bana eskuratu dute. Mikel Atxegak eta Oihana Errazkinek urrezkoak. Zumartekoak sariekin pozik dira.

### Lanbide Eskolak Eurosolar 2007 saria jaso du

**U**surbilgo Lanbide Eskolako Energia Bereiztagarrien alorrrak Eurosolar 2007 saria jaso du. Sari honek energia berriztagarrien erabilpenaren bultzada eta berrikuntza sustatzea du ardatz.

Bartzelonan banatzen den sari honen, Usurbilgo Lanbide Eskolak "Energia berriztagarrien heziketan zein formakuntzan emandako aurrerapausuak" nabarmendu nahi izan dute.

Eskolako arduradun Patxi Vaquerizo zuzendaria, Antonio Gil idazkaria eta Xabier Esteban kudeatzailearen ustez, ondo egindako lanaren emaitza izan da sari hau.

Iñaki Mujika Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako kontseilari usurbildarrak ere, sari banaketa ekitaldian hartu zuen parte.

## Jokin Iartza txirrindularia, zailtasunein aurre eginez

**O**rain bi urte Gipuzkoako beste jubencil mailako txirrindulariekin atzerrian hainbat probatan aritu zen. Iaz, afizionatu mailara igo zen baina osasun arazoek eten egin dute bere garapena. Bigarren urteari behar bezala ekiteko zailtasunak ditu. Igande honetan hasiko da afizionatu mailako denboraldia, usurbildarrentzat hilabete beranduago.

**NOAUA.** Iazko denboraldiari buruz zer esan dezakezu?

**Jokin Iartza.** Beno... Nahiko ondo hasi nintzen, lasterketak amaitzen. Urte erdia igaro zenetik, unibertsitatean ere banabil, bigarren azterketa eta gero burukominekin hasi nintzen eta denboraldi amaieran probatara ere nintzen joaten. Beraz, gaizki.

**N.** Eta zer dela eta, lesioren baten eraginez agian?

**J. I.** Bapatean hasi zitzaidan eta medikuek ere ez didate ezer garbirik esaten.

### EZIN OSATU DABIL

“Bapatean hasi zitzaidan burukomina eta medikuek ez didate ezer garbirik esaten”

**N.** Oraindik hala ere animatuta zaude?

**J. I.** Animatuta bai, baina oraindik burukominekin eta gaizki nabil. Hasiera batean behintzat beranduago bada ere denboraldia hasiko dut.

**N.** Noiz eta zein probatan hasiko zaren ba al dakizu?

**J. I.** Ez dakit. Jada hasi da denboraldia. Nire kasuan, hilabete beranduago hasiko naiz.



IZAN DITUEN ARAZOK ATZEAN  
UZTEKO GOGOZ DA JOKIN IARTZA.

**N.** Gogo biziz zaude...

**J. I.** Bai, baina dagoeneko desesperatuta nago. Ez bainaiz ondo jartzen!

**N.** Entrenamenduetan ala lasterketan izaten al duzu?

**J. I.** Berez etengabekoa da, nahiz eta asko ez izan. Entrenamenduetan eta gero eta okerrago jartzen naiz.

**N.** Kili-kolo beraz...

**J. I.** Bai, eta urte erdi daramat horrela.

**N.** Ondo izanez gero, afizionatuetan ondo ibiltzeko moduan ikusten duzu zure burua?

**J. I.** Iaz ikusitakoaren arabera, ondo entrenatuz gero, agian bai. Baina ez da erraza esatea. Jubencil mailan nirekin aritutakoak ondo dabilzala ikusten da. Baina entrenatu egin behar da ondo aritzeko gero.

### Oiana Blanco judoka, Poloniara bidean

**P**ekingo Olinpiadei begira, Europar mailako judo txapelketan lekua hartzeko azken aukera izango du Oiana Blancok datorren asteburuan, Polonian. Hamburgoko saioan ezin izan zuen dominarik lortu, Mongoliako eta Portugalgo hautagaien aurkako borrokaldietan.

Bestalde, estatu espainiarreko hogeitazazpi txapelketan parte hartuko dute bost usurbildarrek, Zaragozan nagusitu ostean; Eneritz Agouesek, Aiora Arrillagak, Maialen Zubeldiak, Nerea Arrutik eta Jessica Romerok.

### Baxurde-Txikiren denboraldia hastera doa

**D**uela aste batzuk iragarri bezala, herrian kirol talde berri bat osatu da, Baxurde-Txiki izenekoa. Duetloi edota triatloi probatan parte hartuko dute partaideek. Denboraldiari asteburu honetan ekingo diote, Durangon. Bertan jokatu da Euskal Herri mailako zirkuituko lehen duatloi proba. Baxurde-Txikiko hiru kide bertan izango dira; Iñaki Añorga, Mikel Otaegi eta Beñat Sagarazu.

### Euskadiko Sei Orduetan nagusitu zen Amador Granado

**K**irin delako abiadurako lasterketan ez du aurkaririk Amador Granadok. Txirrindularitza egokitan jaun eta jabe izan zen beste behin ere usurbildarra.

### Eskubaloi taldearen asteburuko emaitzak

1. Territoriala	Eibarko H. 24-Usurbil KE 25
2. Territoriala	Groseto 28-Usurbil KE 17
Junior mut.	Arrasate 24- Usurbil KE 23
Kadete mut.	Usurbil KE 40-Katilu 48
Junior nesk.	Usurbil KE 22-Zarautz A 27
Kadete nesk.	Usurbil KE 25-Zarautz B 21

# Autobus Orduetgia

## Astelehenerik Ostiralera LANEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40	>>	08.05	08.15	08.25	06.45	06.55	07.05	>>	07.30
08.10	>>	08.35	08.45		07.15	07.25	07.35	>>	08.00
08.40	>>	09.05	09.15	09.25	07.45	07.55	08.05	>>	08.30
09.10	09.30	09.35	09.45		08.15	08.25	08.35	>>	09.00
09.40	>>	10.05	10.15	10.25	08.45	08.55	09.05	>>	09.30
10.40	>>	11.05	11.15	11.25	09.45	09.55	10.05	>>	10.30
11.40	>>	12.05	12.15	12.25	10.30	10.40	10.45	>>	11.10
12.10	12.30	12.35	12.45		10.45	10.55	11.05	>>	11.30
12.40	>>	13.05	13.15	13.25	11.45	11.55	12.05	>>	12.30
13.10	13.30	13.35	13.45		12.45	12.55	13.05	>>	13.30
13.40	>>	14.05	14.15	14.25	13.30	13.40	13.45	>>	14.10
14.10	14.30	14.35	14.45		13.45	13.55	14.05	>>	14.30
14.40	>>	15.05	15.15	15.25	14.30	14.40	14.45	>>	15.10
15.10	15.30	15.35	15.45		14.45	14.55	15.05	>>	15.30
15.40	>>	16.05	16.15	16.25	15.45	15.55	16.05	>>	16.30
16.40	>>	17.05	17.15	17.25	16.30	16.40	16.45	>>	17.10
17.40	>>	18.05	18.15	18.25	16.45	16.55	17.05	>>	17.30
18.10	18.30	18.35	18.45		17.45	17.55	18.05	>>	18.30
18.40	>>	19.05	19.15	19.25	18.45	18.55	19.05	>>	19.30
19.10	19.30	19.35	19.45		19.45	19.55	20.05	>>	20.30
19.40	>>	20.05	20.15	20.25	20.45	20.55	21.05	>>	21.10
20.15	20.35	20.40	20.50	21.00	21.15	21.25	21.35	>>	21.40
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	21.45	21.55	22.05	>>	22.00
22.15	22.35	22.40	22.50	23.05					

## Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
08.00	08.20	08.25	08.35	08.45	06.45	06.55	07.05	07.10	07.30
09.00	09.20	09.25	09.35	09.45	07.45	07.55	08.05	08.15	08.40
10.00	10.20	10.25	10.35	10.45	08.45	08.55	09.05	09.15	09.40
11.00	11.20	11.25	11.35	11.45	09.45	09.55	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25	12.35	12.45	10.45	10.55	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.25	13.35	13.45	11.45	11.55	12.05	12.15	12.40
14.00	14.20	14.25	14.35	14.45	12.45	12.55	13.05	13.15	13.40
15.00	15.20	15.25	15.35	15.45	13.45	13.55	14.05	14.15	14.40
16.00	16.20	16.25	16.35	16.45	14.45	14.55	15.05	15.15	15.40
17.00	17.20	17.25	17.35	17.45	15.45	15.55	16.05	16.15	16.40
18.00	18.20	18.25	18.35	18.45	16.45	16.55	17.05	17.15	17.40
19.00	19.20	19.25	19.35	19.45	17.45	17.55	18.05	18.15	18.40
20.00	20.20	20.25	20.35	20.45	18.45	18.55	19.05	19.15	19.40
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	19.45	19.55	20.05	20.15	20.40
22.00	22.20	22.25	22.35	22.45	20.45	20.55	21.05	21.15	21.40
22.30	22.50	22.55	23.05	23.15	21.45	21.55	22.05	22.15	22.40

### LARUNBAT GAUETAN

00.00	>>	00.25	00.35	00.45
01.00 <sup>H</sup>	>>	01.25 <sup>H</sup>	01.35 <sup>H</sup>	01.45 <sup>H</sup>
02.00	>>	02.25	02.35	02.45
04.00	>>	04.25	04.35	04.45
05.00 <sup>H</sup>	>>	05.25 <sup>H</sup>	05.35 <sup>H</sup>	05.45 <sup>H</sup>
06.00	>>	06.25	06.35	06.45

### LARUNBAT GAUETAN

23.15	23.25	23.35	>>	00.00
00.15 <sup>H</sup>	00.25 <sup>H</sup>	00.35 <sup>H</sup>	>>	01.00 <sup>H</sup>
01.15	01.25	01.35	>>	02.00
02.15 <sup>H</sup>	02.25 <sup>H</sup>	02.35 <sup>H</sup>	>>	03.00 <sup>H</sup>
03.15 <sup>H</sup>	03.25 <sup>H</sup>	03.35 <sup>H</sup>	>>	04.00 <sup>H</sup>
04.15 <sup>H</sup>	04.25 <sup>H</sup>	04.35 <sup>H</sup>	>>	05.00 <sup>H</sup>
05.15	05.25	05.35	>>	06.00

Zarautz	Orio	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Orio	Zarautz
06.08	06.15	06.24	06.39	05.47	06.03	06.14	06.20
06.38	06.45	06.54	07.09	06.17	06.33	06.44	06.50
07.08	07.15	07.24	07.39	06.47	07.03	07.14	07.20
07.38	07.45	07.54	08.09	07.17	07.33	07.44	07.50
08.08	08.15	08.24	08.39	07.47	08.03	08.14	08.20
08.38	08.45	08.54	09.09	08.17	08.33	08.44	08.50
09.08	09.15	09.24	09.39	08.47	09.03	09.14	09.20
10.08	10.15	10.24	10.39	09.47	10.03	10.14	10.20
11.08	11.15	11.24	11.39	10.47	11.03	11.14	11.20
12.08	12.15	12.24	12.39	11.47	12.03	12.14	12.20
12.38	12.45	12.54	13.09	12.17	12.33	12.44	12.50
13.08	13.15	13.24	13.39	12.47	13.03	13.14	13.20
13.38	13.45	13.54	14.09	13.17	13.33	13.44	13.50
14.08	14.15	14.24	14.39	13.47	14.03	14.14	14.20
14.38	14.45	14.54	15.09	14.17	14.33	14.44	14.50
15.08	15.15	15.24	15.39	14.47	15.03	15.14	15.20
15.38	15.45	15.54	16.09	15.17	15.33	15.44	15.50
16.08	16.15	16.24	16.39	15.47	16.03	16.14	16.20
16.38	16.45	16.54	17.09	16.17	16.33	16.44	16.50
17.08	17.15	17.24	17.39	16.47	17.03	17.14	17.20
17.38	17.45	17.54	18.09	17.17	17.33	17.44	17.50
18.08	18.15	18.24	18.39	17.47	18.03	18.14	18.20
18.38	18.45	18.54	19.09	18.17	18.33	18.44	18.50
19.08	19.15	19.24	19.39	18.47	19.03	19.14	19.20
19.38	19.45	19.54	20.09	19.17	19.33	19.44	19.50
20.08	20.15	20.24	20.39	19.47	20.03	20.14	20.20
21.08	21.15	21.24	21.39	20.47	21.03	21.14	21.20
22.08	22.15	22.24	22.39	21.47	22.03	22.14	22.20
22.38	22.45	22.54	23.09				

00.00 Astelehenerik Ostiralera LANEGUNETAN 00.00 Astelehenerik Igandera eta JAIEGUNETAN  
 (H) Udaz bazarrik 08/06/23 - 08/09/07  
 Bezereen arretarako bulegoa 902 54 32 10 www.euskotren.es attcliente@euskotren.es

Eguneko goardiako farmaziak  
 Otsailak 28, osteguna  
 Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Otsailak 29, ostirala  
 Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Martxoak 1, larunbata  
 De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte  
 Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil\*

Martxoak 2, igandea  
 De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Martxoak 3, astelehena  
 Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Martxoak 4, asteartea  
 Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Martxoak 5, asteazkena  
 De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Martxoak 6, osteguna  
 Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Martxoak 7, ostirala  
 Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Martxoak 8, larunbata  
 Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte  
 Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil\*

Martxoak 9, igandea  
 Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ  
 Correa Farmazia (22:00-09:00),  
 Perkaiztegi kalea, 8 Hernani 943 33 60 22  
 \*Usurbilen, soilik eguerdina arte

## Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN  
 Zubieta-Donostia  
 7:55\* / 9:30(T) / 13:15(T)  
 14:35\*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta  
 (Gipuzkoa plazatik)  
 7:15\* / 9:00 / 12:45(T)  
 13:45\* / 18:45

LARUNBATETAN  
 Zubieta-Donostia  
 8:15(T) / 12:45  
 15:15(T) / 21:35(T)

Donostia-Zubieta  
 (Gipuzkoa plazatik)  
 12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN  
 Zubieta-Donostia  
 11:25(T) / 13:30(T)  
 15:30(T) / 21:35 (T)

Donostia-Zubieta  
 (Gipuzkoa plazatik)  
 11:00(T) / 13:00(T)  
 15:00(T) / 21:00 (T)

T: Autobus aldaketa beharrezkoa da  
 \*: Eskola egunetan / Tf. 943 36 17 40

# Tren Orduetgia



## Agenda !

### Otsailak 29 ostirala

- "Loreak mendian, hondakinak lurpean eta bideak gainean", antzerkia Udarregin. 22:30ean. Antolatzailea: Nafartarrak Kultur Taldea. Sarrera 5 e.

### Martxoak 1 larunbata

- 1979ko kinto bazkaria, 14:00etan Saizarren. Izena emateko azken eguna otsailak 28, Txiribogan.

### Martxoak 1-2

- Pont d'Espagne-ra eski irteera. Antolatzailea: Andatza KKE. Izen-ematea: Txiriboga eta Benta tabernetan jarri diren zerrendetan. 30 euro.

### Martxoak 3 astelehena

- Odol ematea herriko anbulatorioan, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara.

### Martxoak 5 asteazkena

- Hitz Aho guraso elkarteak antolatutako hitzaldia Udarregi ikastolan. 17:00etan. Hizlaria: Joxe Amiama.  
- "Berdintasuna famili esparruan". Hizlaria Jaione Fraile. 18:30ean Sutegin. Usurbilgo Udaleko Ongizatea, Emakumea eta Gizarte Politika Saila.

### Martxoak 8 ostirala

- "Sommer jaunaren istorioa", antzerki saioa Sutegin, gaueko 20:00etan.  
- Emakumearen Egunean, bertso-afaria Andatzpen, 21:30ean. Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Nerea Elustondo eta Jexux Mari Irazu.

## Asteburu honetan,

## Andatzarekin batera eskiatzera

**A**ndatzakoak asteburu honetan abiatuko dira Pont d'Espagnera eskiatzera. Txiribogan edo Bentan ipini dituzte izena emateko zerrendak. Usurbil Futbol Taldekoen irteera, aldiz, martxoaren 29ko asteburuan egingo da; baina izena emateko epea datorren astean amaituko da.

Andatza KKE taldekoak "ipar eski" egitera abiatuko dira asteburu honetan, Frantziako Pirinioetan den Pont d'Espagnera. Izena emateko zerrendak Txiribogan edo Bentan jarrita daude. Prezioa: 30 euro.

### Martxoaren 29an, Saint Lary eski estaziora

Aurreko astean iragarri genuen bezala, martxoaren bukaeran beste eski irteera bat egingo da. Baina hori Usurbil Futbol Taldekoek antolatu dute eta Frantziako Saint Lary eski estaziora joango dira. Irteera honetan parte hartzeko, gutxienez 16 urte izan behar dira. Martxoaren 29an larunbata, goizean irtengo da autobusa eta igande arratsalde-gauean bueltatuko da. Prezioak 16-17 urtekoentzat: 113 euro (forfaita, albergea, pistetako aseguruia eta autobusa). 6 euro gehiago, eski materiala alokatzeko; eta 14 euro gehiago, snow materiala alokatzeko.



30 EURO ORDAINDU BEHAR DIRA ASTEBURU HONETAKO IRTEERAN PARTE HARTZEKO.

18 urte edo gehiago: 134 euro (forfaita, albergea, pistetako aseguruia eta autobusa). 6 euro gehiago, eski materiala alokatzeko; eta 14 euro gehiago, snow materiala alokatzeko.

### Plaza kopuru mugatua, 48

Saint Laryra joateko inskripzioa martxoaren 5ean amaituko da. Horretarako, ordainketa egin Kutxako kontu zenbaki honetan 2101 0069 17 0123588840 eta ondoren e-mail bat bidali behar da helbide honetara: zubiharitzo@hotmail.com

Izen-abizenak, DNI zenbakia eta materiala alokatu behar baduzue hanka zenbakia adierazi.

Aldez aurretik norbaitek erreserba egin nahi badu aipatutako kontuan 50 euroko ordainketa egin dezake eta e-maila bidali. Informazio gehiago:

653 728 059 (Haritz).

## Igeldoko sutea Aginagaraino iritsi zen

**S**uak Igeldo mendi inguruetan bizi diren hainbat herritar esnarazi zituen pasa den otsailaren 24an. Goizeko zortziak inguruan piztu zen, batzuen ustez nahita eraginda, eta besteen iritziz, kontrolik gabeko erreketaren ondorioz. Zauriturik eragin ez zuen arren, kezagarria izan zen egoera. Egiluz baserriko familia etxetik atera behar izan zuten. Inguruko beste bi baserri ere hustekotan izan ziren.

Sutea arratsaldeko 15:30etarako kontrolpean zuten su hiltzailleek. 17:00etan amatuta zen. Itzaltze lanek ordu asko iraun zuten.

Hain zuzen, ez zuen batere laguntzen hegoaldeko jotzen ari zen etengabeko haize bolada zakarrak. Guztira, 80 hektarea erre dira. Iaz Gipuzkoa osoan erretako lur sail kopurua baino hiru aldiz gehiago erre da egun batean Igeldon.



AGINAGAKO LURRETARAINO IRITSI ZEN PASA DEN OTSAILAREN 24AN PIZTUTAKO SUTEA.

### ETXEBIZITZA

- Terrenoa duen borda bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 664774024
- Terrenoa daukan baserri bat erosiko nuke. 664774024
- 75.000 metro karratuko terrenoa daukan baserri bat daukat salgai. Argi indarra telefonoa eta ura ditu. Agroturismo bat jartzeko oso egokia. 664774024.
- San Esteban kaleko 13 zenbakian 4. solairuko etxe bat daukat alokatzeko. Ez dauka igogailurik. Kontaktuan jartzeko: 943362088
- Etxe bat alokatuko nuke norbaitekin Usurbilen, 639370633 (Bixen).
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Pisu salgai Atxegalden. 4 logela, bi komun, sukaldea, egongela eta trasteroa. Berritua. 53.000.000 pezeta. 696 693 710.
- Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalefazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro. Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa saltzen du partikularrak. Zubietan Elizaren ondoan dago eta etxebizitza sartzeko moduan dago. 245.000 euro. 678084020.
- Hiru logelatako etxe baten bila gabiltza Usurbilen. Agentziarik ez. 616064059.
- Etxea salgai Kale Nagusian. 90 m. Igogailua, garajea, trasteroa. 943361383.
- Pisu salgai. Santuenean, 16 zbkia 4. pisua, 33 milioitan (negoziagarria). 667802888.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- 3 logeletako etxe bat salgai, kaxkoan. Igogailua, ganbara eta balkoiduna. 655 72 06 66.
- Pisu alokatuko nuke Usurbilen. 661 702 708.
- Salgai. Kaxkoan, 3 logelako etxea trasteroarekin. Garajea aukeran. 685731792
- Bi gela edo gela bateko apartamentu baten bila nabil. 687 650 066 (Maria).

### SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Usurbilen 33 metro karratutako garaje bat alokatzen dut. Sarrera handiarekin, biltegi moduan erabiltzeko egokia izan daiteke. Ura eta argia dauka. 943373481.

- Kale Nagusian garaje itxi bat alokatzen dugu. Korxeak sartzeko egokia, lokal moduan ez dugu alokatzen. 85 euro hilabetean. Interesatuak deitu 943361235 telefonora.
- Volkswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Land Rover 4.6 (lp) todoterrenoa salgai. 8 urte. 455.000 km. Extra asko. Ruben. 609408401.
- Hiru ateko Honda Civic salgai. Beti garajejan egondakoa. 620625823.
- Mercedes Vito Mixta 112 CDI bat saltzen dut. Aire egokitua, kristal tintatuak, bigarren bateria, berogailu autonomoa... Dena hornitua, 610 431 999.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.

### LANPOSTUAK

#### Lan-eskaintzak

- Astean 3 edo 4 egunez eta egunean 3 orduz (goizez ahal bada) pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume euskaldun baten bila gabiltza. Orduetia flexibilitatea izatea eta auto propioa izatea baloratuko da. 607233255 / 616273785.
- Neska euskaldun (ahal bada) baten bila gabiltza ume bat zaintzeko astean bi goizetan eta zenbait arratsaldetan. 635715142.
- LH edota DBHko ikasleei klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Udaregi ikastolan, lan hori betekin luketen pertsonekin zerranda bat osatzen ari gara. Interesatuak pasa Ikastolatik.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tardeka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. 627278907.
- Urte osoz, astebukaeratan lan egiteko zerbitzari baten bila gabiltza. 943366710.

#### Lan-eskaerak

- Etxekolanak egiteko, umeak edo pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. Esperientziaduna, informea dauka. Interesatuak deitu 943834895 / 650814429
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 636934237.
- Etxeko lanak egiteko emakumea eskaintzen da. Goizez edo arratsaldean lan egiteko prest. Deitu: 679 79 61 01.
- Pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo

- etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 675 657 780.
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko. 630274906
- Emakume bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko. Telefono zenbakia: 676221378.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporrak, ospakizunak, edozein motatako bideok montatzen dituen profesionala eskaintzen da. Telefono zenbakia: 943555835/ 617 242 660.
- Etxeko lanak egin, pertsona helduak zaindu edo jatetxe batean lan egiteko prest nago. 610 669 335.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zein pertsona helduak zaintzeko. 618434990.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620 646 769.

### BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Gizon edo emakume baten bila nabil, apirillean antzerki txiki bat egiteko. Interesatuak deitu 94360321 telefonora.
- Naranja eta gorri koloreko bi raketa galdu ditugu; bat handia, bestea txikia. Aurkitu baduzu, deitu: 692 837 951.
- Abenduaren 4an giltzak galdu nituen giltzako beltz batekin. Aurkitu badituzu eskertuko dugu deitzea: 685 72 56 81.
- Usurbilgo gazte kuadrila bat gara eta lokal bat alokatu nahi genuke herrian. 943360744.
- Kotxeko aulkitxo salgai. Maxi Cosi Priori XP. 110 euro, erdi prezioan. 652 764 620.
- Egurrezko aulkia salgai. Aritz egurrez egini-koak. 943 36 20 49.
- Lur zatitxo bat hartuko nuke, baratz txiki bat osatzeko. 615744076.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Snow egiteko tabla bat fizioekin salgai. Tf: 679 185 102.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideok editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net

**Oharra:** *Jaiotzak*, Bake Epaitegitik jasotako datuak. Merkatu Txikirako mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenak... iragarri nahi badituzu, deitu bulego orduetan: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com



### Zorionak Agurnetxo!

Martxoaren 1ian 23 urte, horrek parranda ear bat merezi du ez? Ondo pasa eguna ta muxu pottolo bat zure mutillan partez!

### JAIOTZAK

**Mañel Lizaso Lanberri**  
Otsailaren 14an jaio zen.

**Jon Uribarrena Eizagirre**  
Otsailaren 18an jaio zen.

teilatua eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**

Obaba kalea 29 · ASTEASU  
☎ 943 69 68 52 · 620 800 186

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13

Olandegija - Gozotegija

**LABE-GOXO**

**CLIMATA-T**  
klimatizazio orokorra

☎ 687 858 390  
climata\_t@yahoo.es



aralar

# ezkerra berri ezker aberri


*euskal boza Madrilen*

Jon Abril eta Iñaki Irazabalbeitia

Martxoaren 5ean, Hitzaldia  
Udarregi ikastolan, 19:00etan



euskadin bizi naiz ni.  
zu, non bizi zara?



Iturria: Europarc 2005 urtekaria

Berdegunen  
babestuak



www.eaj-pnv.eu

# ABSTENTZIOA

## MARTXOAK 2

- 10:00tan mural pintaketa dema plazan
- 12:30etan usurbildarren agerraldia frontoian
- Ondoren pintxo banaketa eta muralaren igoera

Euskal Herriak  
independentzia

